

Inauteriek barruan  
zerbait mugitzen  
dutenean...

Solasean Idoia Urkola  
inauterizalearekin ▶ 2



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2006-02-23 ▶ IV. urtea ▶ 821. zenbakia ▶ [www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Azken ukituak emanda, eromenerako prest

**TOLOSA** ▶ Aisialdi taldeek eta  
danborradetako parte-hartzaileek  
egin dituzte azken entseguak

**SUZIRIA** ▶ 12:00etan jaurtiko dute,  
udaletxetik; eskualdeko herrietan  
ere bada zer ospatzerik ▶ 3-5



Kazkabarra aisialdi taldekoak, asteburuan, Laskorain Ikastolan dantza entseatzen. HITZA

TOLOSA ▶

**Txupinazoa  
jaurtiz  
zabalduko  
dute gaur  
txosnagunea**

8 talderen txosnak  
hartu ditu, Euskal  
Herria plazan; ekintza  
asko aukeran ▶ 3



Karpa dekoratzen. I. GARCIA

TOLOSALDEA ▶

**Zortzi urteko  
kartzela  
zigorra  
Zelaraini  
eta Otegi**

Iñigo Guridiren  
egoera salatze  
ko manifestazioa  
egin dute Villabonan ▶ 7

**ekar**  
ekar ezagutzen dugulako

**INAUTERI  
ZORO ON!**

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA



www.ekar.com



## Ostegun Gizeneko danborradako majorette dotoreak

**ATZERA BEGIRA** ▶ 25 urte baino gehiago daramatza Aurrera Kirol Elkarteak Ostegun Gizeneko danborrada egiten. Mikeleteek, kantinerek, majoretteek, danborrariak, txarangak, karrozak eta txerritxoek zeharkatzen dituzte urtero Alde Zaharreko kaleak, gauean. Txistorra eta cava banatzen diete adi

begiratzen dieten ikusleei. 1998. urteko argazki honetan agertzen direnak Aurrera Kirol Elkarteko majorette dotoreak dira; Iñaki Tadeoren gidaritzapen aritu ziren dantzan urte hartan. Mutilek neskez mozarrotzea gustuko dutela? Inauterietan bai, behintzat. 'AUERRERA K. E.-KO DANBORRADA 1999-25. URTEUMUGA' LIBURUKKA

### IDOIA URKOLA ▶ INAUTERIZALEA

## «Tolosar gehienoi Inauteriek barruan zerbait mugitzen digute»

**Imanol Garcia.** Tolosar askok bezala barnean darama Inauterien festa Idoia Urkolak. Koadrilan ateratzea gustatzen zaio eta nahiko zabaldua dagoen ohitura dute mozarroak pentsatzeko, hau da, urteko lehenengo sagardoa dastatzen duten bitartean.

**Zer dira Inauteriak zuretzat?** Festa, alaitasuna, juerga, txaranga... Oso zaila da hitzez adieraztea; zazpi egunetan zehar bizi duzun egoera berezia da.

**Nola hasi zinen Inauterietan parte hartzen?**

Ikastolako lagunekin hasi nintzen. Kazkabarra aisialdi taldearekin ere ateratzen. Orain dela 15 bat urte koadrilan ateratzen hasi ginen.

**Kontatu daitekeen anekdotaren bat?**

Duela urte batzuk Irurako garaje batean kotxea prestatu genuen: kapota kendu, margoitu... eta Inauteri bezperan handik ekartzeko komeritan ibili ginen: sekulako hotza egiten

zuen eta ia ia gaixotu ginen; pentsatzen hotza sartzen zait. Beste behin txakur txikiak pasatzen amonez jantzi ginen. Egun osoa gure pelutxezko txakur piladunekin aurrera eta atzera, kariñoa hartu ginen eta iluntzean taberna baten atarian utzi genituen. Tabernatik atera ginenerako txakur bat falta zen eta sekulako depresioa hartu zuen jabeak: amona gaixoa...

**Nola egiten dituzue prestaketak?**

Gabonen ondoren sagardotegi batean afaria antolatzen dugu eta han erabakitzen dugu mozarroa. Handik aurrera, ostiraleko Raku tabernan.

**Tolosarrak inauterizale behar du izatez?**

Ez du zertan, batzuk kanpora joatea erabakitzen dute. Baina iruditzen zait tolosar gehienoi Inauteriek barruan zerbait mugitzen digutela.

**Nola definituko zenizkioke Inauteriak kanpotik datorren bati?**



Harley Davidson motozaleetaz mozarrotu zireneko koadrilako argazkia. Idoia Urkola ezkerretik hasita bigarrena da. HITZA

### TRAGO BATEAN ▶

**Egunik onena?** Igandea.

**Gaua ala eguna?** Eguna.

**Festa bat?** Herrikoak, Inauteriak eta Kalderero Eguna. Beste herrietakoak, Ibararako festetako Koadrila Eguna, adibidez.

**Mozorro bat?** Harley Davidson, joteraz, andregeiaz... asko daude.

**Nola asetzen duzu sabela?**

Orain arte jatetxe batera joaten ginen bazkaltzera, baina aurten lokal batean, enkarगतatuko janariarekin.

**Hausterre Egunean?** Egunerokora itzulera: depresioa, nekea, garbigailua jarri beharra...

Adin guztietako herritar guztiek osatutako festa bat, programaren ekintzak baino jendearen parte-hartze eta jarre-  
rak nagusitzen diren festa. Gogoia izanez gero erraza da giroan sartzea eta etorri eta ezagutzea da pena; beti ere jator etorri, noski.

**Jantzitako mozarrorik onena?**

Edozein mozarrok balio du ondo pasatzeko. Gure kasuan andregeiaz haurdun, adibidez: hamasei neska ateratzen eta oso ondo pasatu genuen.

**Eta lehenengoa?**

Lehenengoa beharbada txilabaz, baina ez naiz ondo gogoratzen, aspaldiko kontuak dira. **Zer gustatzen zaizu gehien jai hauetatik?**

Festa giroa.

### DATUAK ▶

## 50

**urtez jarraian Aiz-Orratz elkarteak txaranga jutzen.** Jesus Mari Pedrosa da, Txutxin bezala ezaguna, saxoa jutzen elkarte horretako txaranga urrezko ezteiak bete dituen. Beasaindarra urtero-urtero izaten da Tolosako Inauterietan, eta elkartearen alde egindako lan guztia eskertu nahian, «omenaldi xumea» egingo diote Aiz-Orratzekoek. Astelentan izango da, elkartean bertan egingo duten bazkariaren ondoren, 15:30ak aldera.

## 30

**karroza eta konpartsa gehiago aurten izaz baino.** Aurten festetan 2005eko Inauterietan baino 30 karroza eta konpartsa gehiago izango dira ikusgai. Zehazki, 15 karroza, 28 plataformadun konpartsa eta 102 konpartsa. Aisialdi taldeak, beti bezala, sei izango dira.

### TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostia autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320



## TOLOSALDEKO HERRIETAKO EGITARRAUA ▶

### ZER ETA NON, EGUNEZ EGUN ▶

#### TOLOSA

##### OSTEGUN GIZENA

**09:13.** Etxe-berri-ko oinordekoren Udal bandoa.  
**11:30.** Udal Txistulari Bandak *Inauterietako zortzikoa* joz ohiturazko ibilbidea.  
**11:45.** Kabi-Alai elkarteko korporazioaren pregoia.  
**12:00.** Plaza Zaharrean, jaiaren hasierako suziria.  
**12:00.** Pintxana eta Kabi-Alai txarangaren irteera, Arostegieta kaletik.  
**16:30.** Zezen-plazan xexen-festa, Pintxana eta Kabi-Alai txarangak alaituta. Ondoren, kalejira.  
**23:00.** Aurrera Kirol Elkartearen danborrada.

##### OSTIRAL MEHE

**12:00.** Ozenki Txistulari taldearen kalejira.  
**16:30.** Zezen-plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangak alaituta. Ondoren, kalejira.  
**22:45.** Arpegi Taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Beotibar pilotalekuan.

##### ZALDUNITA BEZPERA

**10:30.** Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Tolosako Dultzaineroekin. Plaza Zaharretik aterako dira.  
**11:30.** Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.  
**11:45.** Dantzari ttikien kalejira abiatuko da Triangulotik.  
**17:00.** Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.  
**17:00.** Haur Danborrada Geltoki kaletik aterako da; Tolosako Danborrada, Triangulotik. Galtzaundi Kultur Etxeko balkoian agerraldia.  
**Ondoren.** Batukada kalez kale.  
**23:30.** Iraunkorrek eta Oriako txarangak kalez kale.

##### ZALDUNITA

**08:00.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.  
**08:45.** Herriko txistulari



Edozein itxura egokia da. L. M.

Bandak ohiturazko ibilbidea eginen du *Inauterietako Zortzikoa* joz.

**10:00.** Txarangaren irteera.  
**10:30.** Plaza Berrian sokamuturra.  
**11:30.** Karroza eta konpartsen irteera.  
**15:45.** Herriko txistulari bandak *Idiarena* pieza joz ohiko ibilbidea eginen du.  
**16:00.** Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukalde txarangekin, kalejira Plaza Zaharretik zezen-plazaraino.  
**16:30.** Zezenak zezen-plazan, txarangak eta txistulariak ikuskizuna alaituko dutelarik. Ondoren, kalejira.  
**19:00.** Dantzaldia Plaza Berrian, Alcoyano, Aiz-Orratz eta Sukalde txarangekin.  
**23:30.** Ori eta Incansables txarangak irtengo dira.  
**23:30.** Plaza Berrian, La lengua de traporen kontzertua.

##### ASTELENITA

**09:00.** Txarangaren irteera.  
**10:30.** Plaza Berrian sokamuturra.  
**11:30.** Karrozen eta konpartsen irteera.  
**16:00.** Kalejira, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.  
**16:30.** Zezenak zezen-plazan, txarangak bertan direla. Ondoren, kalejira.  
**19:00.** Dantzaldia Plaza Berrian, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.  
**21:30.** Korazonistak plazatik zezen suzkoa irtengo da.

**23:30.** Incansables txaranga irtengo da kalera.  
**00:00.** Plaza Berrian Abiba disko-jai.

##### ASTEARTITA

**06:00.** Txistulari Bandak *alborada* joko du udaleteko arkupeetan, Berdura plazan eta Gorriti plazan.  
**08:00.** Pattar Zezena zezen-plazan. Ondoren, kalejira.  
**10:30.** Sokamuturra, Plaza Berrian, Urdiña Txiki txarangak alaituta.  
**11:30.** Karrozen eta konpartsen irteera.  
**15:45.** Herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea eginen du, *Idiarena* pieza joz.  
**16:00.** Kalejira San Esteban, Kabila eta Urdiña Txiki txarangekin, Plaza Zaharretik zezen-plazara.  
**16:30.** Zezenak zezen-plazan, txarangak eta txistulariek alaituta. Ondoren, kalejira.  
**19:00.** Dantzaldia Plaza Berrian, San Esteban, Kabila eta Txapel Haundi txarangekin.  
**23:30.** Incansables Zaharrak txarangaren irteera.  
**00:00.** Sardinen Hileta konpartsen irteera, Gure Txokoa elkartetik.

##### PIÑATA IGANDEA

**Goizean.** Poca Tripa txaranga eta Txilaba elkartearen konpartsa lurreamendi egoitzara joango dira.

##### ABALTZISKETA

##### GAUR

**15:00.** Eskolakoak, indioz jantzita, kalejiran ibiliko dira; ondoren, plazan, tipien inguruan, emanaldia eginen dute.

##### IGANDEA

**09:00.** Txantxoak baserrietara joanen dira.  
**11:00.** Plazan, Txantxo dantza.  
**12:30.** Larraitzen, Txantxo dantza.

##### ADUNA

##### BIHAR

**15:00.** Elordi plazako lokalean, eskola-umeen antzerki emanaldia izanen da gurasoentzat.  
**Ondoren.** Arratsaldekoa.

##### ALBIZTUR

##### GAUR

**15:00.** Umeak eta irakasleak erlojuaz moztarotuta eta musika tresnak joz, jaialditxoa eginen dute eskolakoek plazan.  
**Ondoren.** Merienda.

##### AMEZKETA

##### BIHAR

**15:00.** Eskolako haurrek Inauterietako kalejira eginen dute.  
**Ondoren.** Merienda, plazan.

##### IGANDEA

**08:00.** Talai-dantzarien bi talde Ugarte aldeko baserrietan eta herri gunean ariko dira dantzan.

##### ASTELEHENA

**08:00.** Baserriz baserri jardungo dute talai-dantzarien bi taldek, Bedaio aldera eta Altunegirantz joanez.

##### ASTEASU

##### BIHAR



Txikienak ere, bixi-bixi! L. MONTES

**14:45.** Asteasu-Larraulgo

eskolakoek kalejira eginen dute pilotalekura eta han antzerki eta dantza emanaldia egin.  
**Ondoren.** Merienda.

##### BERASTEGI

##### BIHAR

**14:30.** Eskolatik aterako dira euskal mitologiako pertsonaiak moztarotuta, herrian zehar kalejira eginez.  
**15:45.** Eskolan, arratsaldekoa.

##### IBARRA

##### GAUR

**09:30.** Ikastolan jaialdia eginen dute eta gero, kalejiran plazara jaitsiko dira.  
**Ondoren.** Plazan, musika eta txistorra banatuko dute jendearen artean.

##### IKAZTEGIETA

##### GAUR

**15:45.** Ezustekoz betetako jaialdia eginen dute eskolan.

##### IRURA

##### GAUR

**10:30.** Txistor-jatea ikastolan.  
**12:00.** Hawaii-ko hondartzak gai hartuta antzerkia plazan.

##### VILLABONA

##### GAUR

**15:15.** Herriko hiru eskolek elkarrekin, plazan, dantza emanaldia eskainiko dute.  
**Ondoren.** Kalejira herrian barrena eta bukatutakoan merienda.

##### ZIZURKIL

##### BIHAR

**15:15.** Hiru ikastetxeen kalejira iturritik aterata.  
**Ondoren.** Joxe Arregi plazan, dantza emanaldia eta gero arratsaldekoa.

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 eixetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

### hilberria ▶

#### Juan Antonio Insausti Azarola

Azo hil zen, Zumarragan, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Goian bego—



Haren emaztea: Maria Dolores Elorza; seme-alabak: Aranxa eta Jose Mari Zumarraga, Ascen eta Jose Ignacio Esteibar; bilobak, anaia-arrebak, ezkon anaia-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zumarragako Andre Maria Jasokundeakoaren parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Bidezar 2, 1.B

oharra ▶ gorpua Zumarragako Santa Isabel tanatorioan dago

ZUMARRAGA, 2006ko otsailaren 23a

### hilberria ▶

#### Juan Antonio Insausti

—Goian bego—



Eskerrik asko aitona,  
zure ondoan pasatu ditugun  
momentu atsegin guztiengatik.

Zure bilobak: Endika, Aritz, Eneko eta Ainara

ZUMARRAGA, 2006ko otsailaren 23a



PRESTAKETAK ▶

# Eromenaren atarian, dena prest!

Tolosako eta Ibarroko 6 aisialdi taldek dantzaldien azken entseguak burutu dituzte; danborradakoak ere Bandarekin batera aritu dira; gutzia prest dago, beraz, gaur jai erraldoiari ongetorria emateko



Txiribitu. Eusko Labela aitzaiki, entsegu ugari burutu dituzte Txiribitukoek larunbatero. «12»

### IÑIGO TERRADILLOS NOELIA LATABURU

Gaur emango diote hasiera festarik zoroenari. Sei egun izango dira, botzenaz motz besterentzat luze, gozamenaroko, algararoko, eromenaroko... Azken batean, gutzia baimenduta dago Inauterietan. Baina, dena borobila suerta dadin, lan andana egin beharra izan dute eskola eta eskola aurrera abiatatzen. Astelentean dantzaldia eskaintzen duten aisialdi taldeen kasua da horren adibide. Izan ere, Gaiorako oporaldiaz geroztik buru-belarri dihardute prestaketa lanetan.

Kirikio taldeko kideak mizoz jantziak dira sartu gogor. Hala aukeratu zuten talde gutxiak begiraleek, azaroan egindako jantziaren ondoren, Inauterietan arduratzen den batzordeak hartu du dantza eta jantziak burutuaren eginkizuna. 280 pertaide dira Kirikioek eta 7 minutu eta erdi irauten duen saioa eskainiko dute.

Trentek taldekoek, berriz, beldurrezko pertsonaia aukeratu dituzte haien emanadira. Taldekide guztien artean aditu zuten moztorea eta iragan abenduaren amaieran hasi ziren entseguetan. Rocky, Michael Jackson, Backstreet Boys, Aupa eta Mago de Oz domak nahastuko dituzte, eta horien ondoren, gutziak batera egingo.

Ibarroko Txiribitu taldeak, bestealde eusko labela aukeratu zuten ikasturtearen hasieran Inauterietako gai bezala. Abenduaren bitartean jardun dute eta, ordutik hona, koreografia eta moztorea jorratu dituzte. Dantza errazak aukeratu zituzten, gazteonak aise egin ahal izateko. Aurtengoa,

esaterako, euskal musika eta saltza domak nahastuko dituzte 4 minutuz.

San Bernardo eskaut taldeko begiraleek haurrei galdien diete dantzarako gaiak eta horien artean bozkatuena, errazena eta koloretzuenak aukeratu dute. Honenbestez, aurtengo rapero moztorea hautatu dute. Beraz, 90 neska-mutil arko dira gaitza eta elastiko zabalak, rap doinuaren hartza.

Kazkabarrak Goazen ohera txantxo aukeratu du, non gazteek pijama soinean jantziak dute. Umeentzat eroso izatea eta koloretzua izatea hartzen dute aintzat aukeratzeko. Berebizko garrantzia ematen diote euskarearen presentzari, hori dela eta, bi euskal kanten doinuaren arko dira dantza eta 4.000 pegatina banatuko dituzte. «Eusko euskarri» lelopean.

Atsedena taldeko 110 kideak saumurriz eta ninjaz moztoreko dira. 3 minutu inguruko koreografia prestatu dute begiraleek. Bi taldeetan banatuta lehendabizi, eta ondoren denak batera egiten dituzte entseguak Santa Maria plazan larunbat arratsaldeetan eta igandeko goizean.

### Danborradak ere prest

Etxeke trikienek Zalduneta Beizeren dute protagonismo berezia, arratsaldean izaten den Haur Danborradan. Bita hau prestatzen ere lan handia burutzen dute, helduen modura. Gausean helduen zale haiei trandia, kurten, gainera, baidia berrikuntzarik; izan ere, Mula boren eta Legazpiko eta Bilboko taldeen hantziak erakutsiko dituzte. Musika Bandak azken entseguan parte hartu zuten, gutzia ondo atera dadin.

### AISIALDI TALDEAK ▶

Astelentia egunean dantza ateratzeko azken asteetako asteburuetan gogor egin dute lan dantza entseguetan Tolosa eta Ibarroko aisialdi taldeek.

### KIRIKIO

Mozorroa. Mizoz moztoreko dira jantzi txuri-beltz eta gorriak soinean eta arpegia buru margotuta. Helduenean korbatzeekin berezita egingo dute dantza bateratuta.  
Partaideak. 280.

### TRENTTEK

Mozorroa. Beldurrezko pertsonaia irudikatuko dituzte euren dantza saioan, kolorez eta marguz osatutako jantziarekin.  
Partaideak. 128.

### TXIRIBITU

Mozorroa. Eusko Labela duten lau produktu aukeratu

dituzte moztorezko: Tolosako babarruna, Ibarroko piperra, Ibizabalgogazta eta euskal tomateak.  
Partaideak. 40.

### SAN BERNARDO

Mozorroa. Rap doinuez rapero ibura hartuko dute, arropa zabalak jantziak.  
Partaideak. 90.

### KAZKABARRA

Mozorroa. Goazen ohera izenburua jarriko diote aurtengo txantxoari. Pijama koloretzuen jantziak dira: aitarena, amarena, petodunak eta jaiio-berriak.  
Partaideak. 280.

### ATSEDENA

Mozorroa. Berriek diseinatutako Samurri eta Ninja moztoreak jantziak dituzte dantzarako.  
Partaideak. 110.



Danborrada. Harenegan egindako entsegu izan zen azkena larunbatetik aurrera. «13»

## Apain-apain jantzita... apapara

Erakuslehoiak, eraikinak eta kaleetako txokoak dotore jantzi dira Inauterietarako


### I. TERRADILLOS - N. LATABURU

Mozorroak eta koloreak soinean jantzita eramatea da Inauterietan legea, baina dena borobila izan dadin herritako txokoak ere apain-apain jantzita behar dute izan egunotan. Duela asteletetik hona dendetako erakuslehoiak, eraikinak eta beste hainbat txoko kolorez moztortu dituzte, jai erraldien omenez.

Gaurtik aurrera, gainera, konfietak eta serpentinak osagarri bikaina izango dira kolorez hauekin. Apainagarri gutxiak gutxi baitira Inauterietan merxei bezala ospatu ahal izateko.



Herritako kaleak, apain... «14»



Udalekoak ere dotore atondu dituzte baliak festarako. «15»



«16»

Kazkabarra. Goazen ohera izenarekin baitaiztu dute aurtengo dantza saioa Kazkabarrakoek. «17»

**TOLOSAGAJA**  
Tolosako energia. Berruz  
Energía de Tolosa. Te energía

Arostegialdea, 18 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

**FESTAK ONDO PASA!**

**TOLARGI**  
Tolosako argia. Berruz  
La luz de Tolosa. Te luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA  
Tel.: 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65  
Tel.: matutarako: 6 10 44 00 88  
E-posta: tolagi@tolargi.com  
www.tolargi.com

**ADRIAN TATTOO**  
Tolosako artifizialak  
tatuak, tatuajeak, tatuajeak, tatuajeak, tatuajeak

343 11 00 07  
343 11 00 08  
Tolosako kalea 11, TOLOSA

**Espeitxo**  
Kazkabarra

Korreo, 4 • Tel.: 943 67 05 25  
Korreo, 1 • Tel.: 943 67 33 11  
TOLOSA

**Sasteria Aranguren**  
Gizon eta emakume

Ondo pasa Inauterietan!

Korreo, 4 • Tel.: 943 67 05 25  
Korreo, 1 • Tel.: 943 67 33 11  
TOLOSA

**ALDAMA TAPIA S.A.**  
ARTEKARITZA • GESSORIA • ASEGUROAK  
Kaleburua, 22 • Tolosa • Araba • Tel.: 943 39 44 78 / 943 30 01 67 / Fax: 943 30 04 17  
atzerriko@aldama.es | logotipo@aldama.es  
Foneroi etek, 7 • Tolosa • Tel.: 943 65 93 75 / 943 65 93 92 / Fax: 943 65 92 06  
gestio@aldama.es | logotipo@aldama.es

**LASKORAIN IKASTOLA**  
Euskaraz bizia

Usabal auzoa, 26 • TOLOSA  
Tel.: 943 69 71 22  
www.laskorainikastola.net



TXOSNAGUNEA ▶

# Taberna handi baten giroa

Euskal Herria plazan eta karpa handi batean bildu dira txosna guztiak; giroa ziurtatzen dute txosnaguneko taldeek

IMANOL GARCIA

Iaz bezala, txosnagunea karpa handi baten barruan kokatuko da aurtengo Inauterietan. Al-datuko dena lekua da: Euskal Herria plaza erdian dago txosna erraldoia prestatuta. Zortzi taldek antolatu dute txosnagunea: 18/98 + plataforma, Euskal Herria Eraiki, Tolosako Gazte Mugimendua, AHT Gelditu! Elkarlana, Sanblazpiko Gazte Asanblada, Ikasle Abertzaleak, Oargi Mendi Elkartea eta Bilgune Feminista.

«Lagunarteko giroa izan dugu guztia antolatzerakoan», azaldu dute txosnaguneko batzordekideek. Iaz lau talde ziren eta aurten beste lau gehiago animatu dira. Karpa ere handiagoa da, 450 m<sup>2</sup>-koa. «Lehen, talde bakoitzak bere txosna zuenean, eguraldiaren menpe egoten ginen. Orain, dena karpa barruan dagoenez, hobeto babestuta dago txosnagunea», diote.

Txosnagune guztia leku batean biltzean, giroak ere irabazi egiten dutela diote: «Taberna handi bat bezala izango da. Bi barra egongo dira eta erdian eszenatokia, antolatu ditugun ekitaldietarako».

Egitaraua gaur bertan hasiko da, txupinazoarekin. Lehiaketak egingo dira ere, gaur irrintziarena eta Zaldunita Bezperan bertsoarena. Ostiralean bakarrizketa May Gorostiagaren eskutik eta ondoren herri afaria. Bost euro balio du eta Raku, Intxurre eta Denak tabernetan eman behar da izena. Kontzertuarekin amaituko dira egun horretakoak. Larunbatean haurrentzako ekitaldiak izango dira. Zaldunitan txarangen giroa jasoko dute eta baita edari dastaketa ere: «Hainbat edari jarriko ditugu eta, begiak itxita, probatzaileek asmatu egin beharko dute edari mota».

## Goizaldera arte

Egunero 18:00etan irekiko dute txosnagunea, gaur izan ezik, eguerdirako zabalik egongo baita. 06:00 eta 06:30-ak ingurura arte musika izango da karpa erraldoian eta ordu erdi beranduago itxiko dute. Asteartean, azken eguna, 02:30 estaliko da. Batzordekideek inauterizale guztiak animatu dituzte txosnagunera azaltzera. Giro aparta egongo dela ziurtzat jotzen dute.



Talde bakoitzeko kartelak erabili zituzten atzo karparen dekorazioa burutzeko. I. GARCIA

## EGITARAUA ▶

Txosnagunean ekitaldiak antolatu dituzte gaur hasi eta Zaldunita arte. Astelenitan eta Asteartitan «giro paregabea» eskainiko dute.

### OSTEGUN GIZENA

12:30. Txupinazoa, txistorrada, trikitaliak...

24:00. Irintzi lehiaketa.

### OSTIRAL MEHEA

19:30. May Gorostiagaren bakarrizketa. Ondoren, herri afaria.

23:00. Kontzertua, Izeba Pilarren ilobak, The Solanos eta Nekin taldeekin.

### ZALDUNITA BEZPERA

18:30. Txokolatada, haur jolasak, pailazoak...

24:00. Bertso lehiaketa.

### ZALDUNITA

18:00. Bonberenea txaranga, konpartsak...

19:00. Edari dastaketa.

Gozotegia eta okindegia

## ECEIZA

Teilak eta Zigarriloak

Pablo Gorosabel, 84 • Tel.: 943 655161 • San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916 • TOLOSA

ONDO PASA JAIKAI!

Milena Herategi-Urriategi

Tel.: 943 65 07 84  
Nafarroa etorb. 17  
TOLOSA

Café Iruña

Pintxoak eta plater konbinatuak

Gorriti plaza, z/g•Tolosa•Tel: 943 01 65 65

THE FACTORY

Moda

Korreo, 11 - TOLOSA  
Tel.: 943 67 58 93

ZERBITZU BULEGOA

## AIXA

Nominak - Kontabilitateak  
Zergak - Autonomoak

Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 03 03  
Faxa: 943 65 22 22  
mjhuarte@euskalnet.net

"Xirimiri" Txokolategia

Gora inauteriak!

Errementari kalea, 40 • Telef. 943 67 52 23  
20400 Tolosa

PAULINO SORARRAIN S.L.

1.918 tik aurrera

- Fundiziorako modeloak egurrean, poliestirenoan eta resinan
- Dentsitate handiko polietilenoen mekanizatua
- Enbalaketa

Donostia Etorb. 6 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 25 58 • Faxa: 943 69 73 49  
E-maila: PAULINO\_SOR@terra.es

Tolosaldea BUS S.L.

Ondo pasa Inauteriak!

Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Ikastetxeak Kirol taldeak

Tel eta faxa: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia Etorb. 9 • TOLOSA

'ZURE UMEEN DENDA'

sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak  
zakuak • maindireak • ohe estalkiak

HAURDUNENTZAKO ARROPA-HAUR MODA 0-2 URTE  
ONDO PASA INAUTERIAK!

Txalo

San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

HERNIALDE JAILEKIA

hala guztia gaitzen laskurain

Ondo pasa Inauteriak!

martin jose iraila, 10 • tolosa  
tel.: 943 67 56 54

'EGUNKARIA AUZIA' ▶

## Bere horretan mantendu dituzte zazpi auzipetzeak

ERREDAKZIOA

*Egunkaria auzian* auzipetutako Martxelo Otamendi tolosarra, Iñaki Uria, Joan Mari Torrealдай, Pello Zubiria, Txema Auzmendi, Xabier Alegria eta Xabier Oleagaren defentsak aurkeztutako babes helegitea atzera bota, eta prozesamenduarekin aurrera jarraitzea erabaki du Espainiako Auzitegi Nazionalako 2. Salak. Horrenbestez, epaiketarako bidean jarri du auzi hori.

Atzo kaleratutako 31 orrialdeko autoak dioenez, ETA eta *Euskaldunon Egunkaria* lotuta egon daitezkeela esateko arrazoiak badaude ETako kideei ustez atzemandako gutunetan ikus daitezkeenez. Beraz, auzia artxibatu gabe epaiketa egiten jarraitzeko arrazoiak badaudela dio Auzitegi Nazionalak, Juan del Olmo epaile instruktorearen ikerketarekin jarraituz.

ANOETA ▶

## Tutoreak bisita egingo du gaur KZgunera

Tutorearen bisita jasoko dute Anoetako KZgunean gaur 09:00etatik 13:00etara. Mintegi bat eskainiko du tutoreak: *KZguneko foroa eta laguntza* izenokoa izango da. 10:00etatik 11:00etara bitarte irauzango du mintegiak, eta ez da beharrezkoa bertan parte hartzeko aurretik izena ematea.

ZIZURKIL ▶

## Makilaje ikastaroa martxoaren 2an

Zizurkilgo Udaleko Kultura Sailak makilaje ikastaroa antolatuko du datorren hilerako. Hain zuzen, ikastaroa martxoaren 2an hasi eta 23an bukatuko da. Lau ostegunetan burutuko da, beraz, eta 19:00etatik 21:00etara izango da ordutegia. 30 euro ordaindu behar dira ikastarora joan nahi izanez gero. Izena emateko 943 69 30 66 telefonora deitu behar da.

PRESOAK ▶

ERREDAKZIOA

Parisen urtarrilean epaitutako sei euskal herritarren aurka prokuradoreak eskatutako zigorrak behin betiko ezarri dizkiete. Horien artean aurkitzen dira eskualdeko bi preso politiko: Oskar Zelarain billabonatarra eta Andoni Otegi leaburuarra. Biek 8 urteko kartzela zigorra bete beharko dute, epaiaren arabera. Horrez gain, Frantzian bizitzeko debekua ere ezarri diete biei.

Ainhoa Mujika eta Jon Olarra euskal preso politikoak eta aske diren Saroia Galarraga eta Bruno Josie dira gainontzeko epaituak. Lehenengo biek 10 urteko kartzela zigorra bete beharko dute. Saioa Galarragak 5 urteko zigorra jaso du, eta Bruno Josiek, bestalde, 3 urte eta hiru hilabeteko zigorra jaso du.

2002. urteko irailaren 20an atxilotu zituzten, Frantzian, Bagnères-de-Luchon, ETAko kide izatea leporatuta. Hiru urte baino gehiago itxaron egin behar izan dituzte epaiketarako. 2006ko urtarrilaren 2tik 10era iraun du epaiketak. Zelarainek, Otegi, Mujikak eta Olarrak hala eskatuta, lehenengo saioan soilik izan ziren.

«Inauteriak presoekin»

Amnistiaren Aldeko Mugimendua sagardotegia jarriko du Inauterietako egun guzietan. Gaur bertan zabalduko dituzte ateak, Tolosako Abastos plazan.

Asteartera bitarte, afariak egingo dituzte, Tolosako Abastos plazan. Iganderako bazkaria ere antolatuko dute azaldu dute antolatzaileek. Bertan dastutako dutena sagardotegi menua izango da, baina aukeran saiheskia ere eskatu ahal izango dela gogoratu dute.

Aurtengoa sagardotegiaren zazpigarren urtea da. Bertan jasotako dirua presoak eta haien senideak laguntzeko izango da.

Kontzentrazioak, bihar

Bihar, hilabeteetako azken ostira izanik, elkarretaratzek egingo dituzte eskualdean, Etxeretek deituta.

Tolosan, Trianguloan elkartuko dira, 19:30ean. Ordu berean egingo dute kontzentrazioa Ibarren, Alegian, Amezketan eta Anoetan, ohiko lekuetan. Bestalde, 20:00etan da biltzeko hitzordua Zizurkil, Asteasun, Villabonan eta Adunan, ohiko lekuetan. Lizartzan ordu berean egin dute deia, plazan. Leitzan ere bilduko dira 20:00etan, Lopeneko atarian.

# Zortzi urteko kartzela zigorra Otegiarentzat eta Zelarainentzat

Prokuradoreak eskatutako zigorrak behin betiko ezarri dizkiete; Frantzian bizitzeko debekua ere jarri diete



Guridiren egoera salatzen atzo egindako manifestazioaren une bat. I. GARCIA

## Iñigo Guridi presoaren egoera salatu dute

Iñigo Guridi presoaren egoera salatzen eta Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua deituta, 125 bat lagunek manifestazioa burutu zuten atzo arratsaldean herriko kaleetatik zehar. Izan ere, bost urte bete dira Guridi kartzelaratuta zutela, eta horregatik antolatuko dute protesta ekitaldia. Herriko beste preso politikoekin espetxeratze egunetan ere manifestazioak burutzeko asmoa azaldu dute Amnistiaren Aldeko Mugimendukoek.

Guridik espetxean pasatu dituen 5 urteetan «oso bizi baldintza gogorak ezagutu» dituela salatu zuten. Izan ere, denbora gehienezko isolamendua egoeran eduki dute. Isolamenduak «eskubideen

murrizketa suposatzen du», eta helburua «euskal presoak psikologikoki txikitzea» da. Bertako arauak bereziak eta espetxe barruko beste arauetatik desberdinak direla salatu dute. «Erregimen gogoragoa da, presoak babesik gabe utzi», Amnistiaren Aldeko Mugimendua dioenez. Isolamendu Modulu Bereziko ateari gurtzatuz gero, «araudiek eta erregimenduek ez dute indarrik, eta kartzeleroek beraien legeak aplikatzen dituzte. Honela, presoari probokatzeko asmoz astero arau berriren bat asmatzen ohi dute».

Isolamendu ziegak «txikiak, hezeak eta zikinak» dira, eta leihotik eguzki izpirik ez da inoiz sartzen. «Gainera, preso-

ak ezin ditu bereak diren gauza guztiak edukitu».

Legediaren arabera, preso bat isolamendu egoeran aste batzuetan bakarrik mantendu daiteke, baina euskal preso politikoekin kasuan eta zehazki Guridiri dagokionez, hilabete luzez edukitzea dute isolaturik. Horregatik, asteazkeneko manifestazioan Guridiren «Euskal Herriratzea eta askatasuna» eskatzeaz gain, «legez kanpoko isolamendu politika krudela» ere salatu zuten. ◀

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**  
**Ohea.** Estreinatuko gabeko 90 zentimetroko kabi ohea salgai, kajoiek. 943 65 45 31 edo 943 65 20 33.  
**Kotxea.** Citroen Berlingo. 2003koa. 30.000 km. Oso egoera onean. 11.000 euro. 635 736 375.  
**Lokalak.** Leitzan, lokalak eta garajeak salgai, eraikuntza berrian. 637 80 60 44.

**LANA**  
**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da taberna lau ordu egiteko. Esperientziaduna. 635 745 291.

**K**  
**IKATZA**  
**PINTXOAK - BOKATAK**  
**ANOAK**  
**PLATER KONBINATUAK**  
Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa  
Tfnoa: 943 67 49 13

**66**  
Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak.  
- 7etan irekita -  
**jai zoriontsuak pasa!**  
M.J. Iraola, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 19 37



**ZIRI-ZIRI ▶**  
**JOXEMI SAIZAR**

Jan-edari arteko egunak

**A**upa mozolok! Ostegun Gizona zer da, gizenen eguna edo gizentzeko eguna? Zalantza esistentzial hau mahairatu zuten atzo gauerdian Inauterietako lehen afarian, Vista Alegre txarangakoez egiten dutena bere txupinazo partikularra bota aurretik. Taldeko sasi-bertsolariak bota zuen koplak: «Inauterietan ere ez galdu neurria/ nahi eta sarri izan kriston egarria». Lasaitu ederra hartu zuen.

Suziriarekin batera, jan-edan festari eman zioten hasiera Vista Alegrekoez. Gaztetxoek gaur txistorra jancez, bere errito inizatikoan. Kontuz ibili! Helduagoek kutxiz ondo hornitutako bazkari-afarrietan, elkarrekin edo jatekietan. Tardean, egun hauetan izango dugu mahaiaren eta edalontziaren inguruan biltzeko nahiko aitzaki: Dianaren ondorengo hamaiketako ugariak, bazkal aurreko marianoak, bazkal ondoko pattarrak, arratsalde erdiko merienda ondrosak, iluntzeko poteo amaiezina, tabernaz tabernako kalejira antzuak, gauerdiko baratxuri zopak... Basurdea ere ez da faltako. Argi dago gaztelarazko *Carnestolendas* izenaren jatorria.

Salto eta dantza egin behar dugu egun hauetan jandako guztia jaisteko. Badakizue, «neska gaztiak ez lotsik euki guregana etortzeko, pintxanatarrek beti zai gaude zuekin dantzatzeko». Eongo gatzink!

**GORA ETA BEHERA ▶ NOELIA LATABURU**



**Ailegatu dira azkenean... Inauteriak**

Askok eta askok hitz hauek irakurtzen dituztenerako jai giroan murgilduta egongo dira edota, kirioak dantzan, jai erraldoiak iragartzen dituen txupinazoaren zain. Haatik, aurretik ditugun sei egunak borobilak izan daitezten eta guztia ondo irten dadin herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Eta aurten ere erantzun dute, ez nola-nahi, gainera. Erakuslehoak, eraikinak, kaleak...—argazkian, Alde Zaharreko Letxuga kalea— Guztia prest dago festaren hasierarako. Honenbestez, hitz bi esatea baino ez litzateke faltako: «Ondo pasa tolosar eta kanpotar guztiok eta Gora Inauteriak 2006!» NOELIA LATABURU



**INAUTERIETAN ERE, EUSKAL PRESOK, ETXERA, TOLOSARA**  
 Zatoz sagardotegira, gure presoen alde txotx egitera eta ekonomikoki laguntzera. Ostegunetik asteartera iluntzeetan irekita, eta igande eguerdian ere bai.



**URTE ASKOAN**  
 Martin Balda Gorostidi (Alegia).  
 Zorionak aitaboi! Arkaitz, Nagore eta amaren partez.

**ZORION AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Eñaut Otegi. Zorionak

1. urtebetetze egunean. Muxu handi bat, amaboi eta aitaboi partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Amalur Beloki Tobar (Alegia).

Gaur urtebete. Zorionak Garazi eta ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Aimar Jauregi Lekuona (Anoeta).

Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu bat ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Iosu Azkue Arsuaga (Iruira).

Gaur 4 urte. Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Enaitz Lizarralde Zalakain.

Gaur 3 urte betetzen ditu. Zorionak. Apa pipergorri! Senideak.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
 Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaiberriak... zorianzako, etorri:  
 HITZAren egoitzetara:  
 Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
 Udaltzeko bulegoa - LEITZA  
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
 Mila esker!